<p><b>3.SAILEKO ORGANOEEN ARTEKO HARREMANAK ETA GOBERNUKO BESTE ORGANOEKIKOAK KOORDINATU ETA, HALA BEHAR IZANEZ GERO, EZARRITAKO JARDUNBIDEARI JARRAITUZ, LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANAK BIDERATZEA.</b></p> <p>1. Saileko organoen arteko, gobernuko gainontzeko organoekiko, eta bestelako administrazioekiko harremanak bideratzea, Sailaren jarduketa alorreko irizpideak eta ekintzak bateratu ahal izateko.</p> <p>Bilerak, idazkiak eta komunikazioak. 55</p> <p>2. Legebiltzarrarekin elkarlanean aritu eta koordinatzea.</p> <p>Legebiltzarreko galderen erantzunak. &gt;300</p>		<p><b>3.COORDINACIÓN ENTRE LOS DISTINTOS ÓRGANOS DEL DEPARTAMENTO Y DE ÉSTOS CON EL RESTO DEL GOBIERNO Y EN SU CASO, ENCAUZAMIENTO DE LAS RELACIONES CON EL PARLAMENTO POR EL PROCEDIMIENTO ESTABLECIDO.</b></p> <p>1. Concertar las relaciones entre los órganos del Departamento y de éstos con el resto del Gobierno y otras Administraciones, para aunar criterios y acciones en ejecución de las áreas de actuación del Departamento.</p> <p>Reuniones, escritos y comunicaciones.</p> <p>2. Interacción y coordinación con el Parlamento.</p> <p>Respuestas a preguntas parlamentarias.</p>

<b>HELBURUA</b> <b>EKINTZA</b> <b>ADIERAZLEA</b>	MAGNITUDEA MAGNITUD	<b>OBJETIVO</b> <b>ACCION</b> <b>INDICADOR</b>
Legez besteko proposamenak, mozioak eta interpelazioak.	75	Proposiciones no de ley, mociones e interpelaciones.
Informazio dokumentatuaren eskaerak.	>150	Solicitudes de información documentada.
Kontrolako osoko bilkuretan esku-hartzeak.	>15	Intervenciones en Plenos de Control.
Sailaren agerraldiak.	>15	Comparecencias del Departamento.
Arartekoaren gaiak bideratzea.	>5	Temas tramitados ante el Ararteko.

**PROGRAMA**  
4312 ETXEBIZITZA

**PROGRAMA**  
4312 VIVIENDA

**ARDURADUNA**  
ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA  
ETXEBIZITZA SAILBURUORDEA

**RESPONSABLE**  
VIVIENDA Y AGENDA URBANA  
VICECONSEJERO DE VIVIENDA

### **MEMORIA**

#### 1. INGURUNE OROKORRA ETA SEKTORE INGURUNE ESPEZIFIKOA

2022ko azaroaren 30ean, Etxebitzaren aldeko 2022-2036 Itun Soziala sinatu zuten EAEko 90 erakunde eta agente ekonomiko eta sozialek. Itun horrek etxebizitza-politikaren epe luzerako plangintza estrategikoa gauzatzeko du, EAEko herritarrei irtenbideak emanez etxebizitza eskuragarria lortzeko beharrei erantzuteko orduan. Halaber, irisgarritasuna, zahartzea, erronka energetikoa eta erronka klimatikoa bezalako arazoei aurre egiteko etxebizitzaren eraikuntza-zaharberitzearen erritmoa biderkatzen du.

Itunaren hasierako asmoa etxebizitzari lotutako garapen jasangarrian sakontzea izan zen (enplegua, jarduera, ekonomia jasangarria, energia-efizientzia, irisgarritasun unibertsala), eta epe luzerako aliantzak eta lankidetzak lantzeko aukera gisa ere hartu zen, Nazio Batuen garapen jasangarriko helburuekin bat etorritik.

Epe luzerako plangintza hori, 3/2015 Etxebizitza Legeak eskatzen duen gisan, epe ertainerako (3 urte) plangintza estrategikoarekin eta urtez urte ezartzen diren etxebizitza-programa eragileekin osatu eta zehazten da.

Ekintza-lerro horretan, 2025aren hasieran 2025-2027ko Etxebizitzaren Gida Plan berria onartuko da. Bertan, Etxebizitzaren Aldeko Itunean jasotzen diren estrategiak, helburuak eta ekintzak zehaztuko dira.

Azkenik, 2025eko etxebizitza-programaren helburu, ekintza eta adierazleek eta hari lotutako aurrekontuak egiteko prozesuek operatiboki garatzen dituzte diseinatutako estrategiak. Legealdi honetarako Gobernu Programa da, horren barruan, berrikuntza garrantzitsuetako bat.

#### 1. ENTORNO GENERAL Y SECTORIAL ESPECÍFICO

El 30 de noviembre de 2022, se firmó el Pacto Social por la Vivienda 2022-2036 entre 90 organizaciones y agentes económicos y sociales de Euskadi, pacto que instrumenta la planificación estratégica a largo plazo de la política de vivienda, aportando soluciones a las necesidades de acceso a una vivienda asequible para la población vasca, y multiplica el ritmo de la rehabilitación edificatoria residencial para solucionar problemas de accesibilidad y envejecimiento, el reto energético y climático.

El Pacto surge con la visión de profundizar en un desarrollo sostenible vinculado a la vivienda (empleo, actividad, economía sostenible, eficiencia energética, accesibilidad universal) y como una oportunidad de trabajar alianzas y cooperación a largo plazo, en línea con los objetivos de desarrollo sostenible de Naciones Unidas.

Esta planificación a largo plazo se completa y detalla, como exige la Ley de Vivienda 3/2015, con una planificación estratégica a medio plazo, 3 años, y con los programas operativos anuales de vivienda.

En esta línea de acción, a principios de 2025 se aprobará el nuevo Plan Director de Vivienda 2025-2027 que concretará las estrategias, objetivos y acciones incluidas en el Pacto Social por la Vivienda.

Finalmente, los objetivos, acciones e indicadores del programa de vivienda 2025 y la propia elaboración del Presupuesto vinculado, desarrollan operativamente las estrategias diseñadas, incluyendo como importante novedad, el programa de Gobierno para esta legislatura.

Etxebizitzak estatus nabarmena lortu du politika publikoetan, Ongizatearen Estatuaren bosgarren ardatz bihurtuta.

Etxebizitza eraginkorrerako eskubide subjektiboa aitortuta, beraz, pertsonak beren bizi-proiektuari aurre egiteko eta beste hainbat eskubide baliatzeko aukera dute; esaterako, osasunerako, hezkuntzarako, lanerako, kulturarako edo partaidetza publikorako eskubideak.

EAEko etxebizitzaren azpi-sektorearen bilakaerak positiboa izaten jarraitzen du, zailtasunak dituen arren. 2024ko lehen hiruhilekoan, EAEko ekonomiak gorantz jarraitu zuen, modu egonkorrean, 2023an zehar bezala. Hala, urte artean % 1,7ko aldakuntza-tasa erregistratu zuen, azken bi hiruhilekoetan moduan.

Eraikuntzan berriz ere hazkunde nabarmena antzeman zen, eta balio erantsia % 2,0 igo zen, 2023an lortutako % 2,1eko batezbestekoaren antzera. Sectoreak kostu altuak ordaindu behar ditu, bai lehengaietan bai eskulanen eta interes-tasetan, baina gai izaten ari da dinamismo handiz eusteko.

Interes-tasak jaisten hasi dira. Europako Banku Zentralak prest dirudi interes-tasetan 2024ko bigarren jaitsiera iragartzeko. Nahiz eta inflazioak oraindik ere % 2aren helburuaren gainetik jarraitzen duen, pentsatzekoa da Europako Banku Zentralak tasak jaisteko joerari eutsiko diola. Petrolioaren oraintsu erorita eta soldaten hazkundea apalduta, aukera handiagoak daude banku zentralak murrizketak iragar ditzan hurrengo hilabeteetan. Horrek, zalantzarik gabe, eskaria mugiaraz lezake.

2024ko bigarren hiruhilekoan, EAEn etxebizitza berriaren batez besteko prezioa 3.296 €/m<sup>2</sup> izan da, 2008tik izandako datu altuenetatik hurbil kokatuta, urte arteko doikuntza -% 0,5 izanik. Aldiz, etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa 2.913 €/m<sup>2</sup> izan da (2011tik egondako daturik altuena, urte arteko igoera % 1,4koa izanik).

Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitza librearen batez beste prezioa 249.220 €-koa izan da bigarren hiruhilekoan, urte arteko hazkundea %1,5ekoa izanik (2024ko lehen hiruhilekoan % 2,8koa izan zen).

2024ko lehen hiruhilekoan eraturako fidantzek 793,3 €-ko batez besteko errenta dute, hau da, aurreko urteko hiruhileko berean erregistratutako prezioa (753,6 €) baino % 5,3 handiagoa.

2024ko lehen hiruhilekoan erregistratutako gordailu berrien batez besteko errenten analisiak zenbait zifra ematen ditu: hileko 575,8 €-tik (2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan) 751 €-ra (40.001 eta 100.000 biztanle arteko herrietan) bitartekoak, hain zuzen ere; eta hiriburuetan, batez beste, 846,3 €-ko errentak erregistratu dira hilean: horien artean, Donostia nabarmen izan da, hileko 1.005,5 euroko batez besteko errentarekin.

La vivienda ha alcanzado un estatus destacado en las políticas públicas al ser reconocida como el quinto pilar del Estado del Bienestar.

El reconocimiento de un derecho subjetivo a la vivienda efectivo permite que las personas puedan afrontar su proyecto de vida y la práctica de otros muchos derechos como el derecho a la salud, a la educación, al trabajo, al descanso, a la cultura o a la participación política.

La evolución del subsector vivienda vasco sigue siendo positiva, pero con dificultades. En el primer trimestre de 2024, la economía vasca mantuvo el ritmo de crecimiento estable que la caracterizó durante 2023 y registró una tasa de variación interanual del 1,7%, idéntica a la de los dos trimestres anteriores.

La construcción volvió a mostrar una imagen de notable crecimiento y registró un incremento del valor añadido del 2,0%, en línea con el 2,1% que obtuvo de media en 2023. El sector está haciendo frente a unos costes elevados, tanto en las materias primas como en la mano de obra y en los tipos de interés, pero está siendo capaz de mantener un significativo dinamismo.

Los tipos de interés han empezado a bajar. El Banco Central Europeo (BCE) parece dispuesto a anunciar la segunda bajada de tipos de interés de este año 2024. Aunque la inflación aún sigue por encima del objetivo del 2%, hay motivos para creer que el BCE va a retomar las bajadas de tipos. La reciente caída del petróleo y la moderación del crecimiento salarial allanan el terreno para que el banco central anuncie varios recortes en los próximos meses, que sin duda pueden movilizar la demanda.

En el segundo trimestre de 2024, el precio medio de vivienda nueva en Euskadi ha sido de 3.296 €/m<sup>2</sup>, cerca de máximos desde 2008, con un ajuste interanual del -0,5%, mientras que en vivienda usada el precio medio ha sido de 2.913 €/m<sup>2</sup>, máximos desde 2011, con un incremento interanual del 1,4%.

El precio medio por vivienda libre en la Comunidad Autónoma de Euskadi ha sido de 249.220 € durante el segundo trimestre, un ascenso interanual del 1,5% (2,8% 1T24).

Las fianzas constituidas en el primer trimestre de 2024 alcanzan una renta media de 793,3€, lo que supone un 5,3% superior al precio registrado en el mismo trimestre del año anterior (753,6€).

El análisis de las rentas medias de los nuevos depósitos registrados en el primer trimestre de 2024 ofrece cifras que oscilan desde los 575,8 €/mes (de los municipios de menos de 2.500 habitantes), a los 751 €/mes (de las poblaciones de entre 40.001 y 100.000 habitantes); y rentas de 846,3 €/mes registradas por término medio en las capitales, destacando Donostia-san Sebastian con una renta media mensual de 1.005,5 euros.

Egungo egoerak nabarmen zailtzen die gizarteko hainbat mailari EAEko alokairu-merkatuan sartzeko aukera, batez ere tentsio handieneko tokietan, hau da, EAEko hiriburuetan eta haien metropoli-eremuetan; izan ere, eremu horietan, arrazoizko prezioan dauden etxebizitzaren eskaintza txikia da, eta eskaera, berriz, handia.

2023an, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak EAEko 43 udalerritan antzeman zuen Tentsio Eskariko Gunearen aitortpena eskatzeko baldintzak betetzen zirela: 21 Gipuzkoan, 2 Araban eta 20 Bizkaian.

Egoera horren berehalako ondorioa EAEko errenta baxu eta ertainteko gizarte-mailalara hedatzen da: hain zuzen ere, etxebizitza eskuratzeko (erosteko zein alokatzeko) ahalegin ekonomikoa handitu egiten da, batez ere hiri-eremu zabaletan. Izan ere, eremu horietan ez dago eskaintza eskuragaririk, saihestu egingo duenik EAEko familien gehiegizko ahalegin ekonomikoa eta finantzarioa, beren etxebizitzetan segi dezaten; edota, besterik gabe, ezinezkoa da inguru horietan etxebizitzarako eskubidea izatea.

Etxebizitzarako eskubide subjektiboa guztiz eraginkorra izango da 2025ean, muga ekonomikoak eta kolektibo sozial hartzaileak hedatuta. Horretarako, diru-sarrerak bermatzeko errentari eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari lotuta geratuko dira, eta etxebizitzarako prestazio osagarriak etxebizitzaren eremuaren esku.

Alokairuko etxebizitza babestuak eraikitzeari dagokionez, EAE helburuetan eta egikaritze operatiboan ere nabarmentzen da. 2025ean, aurreikusten da alokairuko 1.475 etxebizitza babestu berri eraikitzen hasiko dela.

Azken bi legegaldien aldean, jarduera horrek gora egingo du. Gainera, etxebizitzak erosteko errekurtsu berri bat dago eta, Bizigune eta Asap programen bidez, hutsik dauden etxebizitza libreak erakartzeko orduan gora egitea aurreikusten da. Horrek guztiak aukera eman behar du Jaurkitzek datozen lau urteetarako duen helburua betetzeko: babes publikoko 7.000 etxebizitza jartzea herritarren esku.

EAEk Estatuko adierazlerik handienetako bat dauka alokairuko etxebizitza babestu bukatuen arloan, 1.000 biztanle bakoitzeko: 67,6. Estatuko batez bestekoa, berriz, 19,4koa da. Hau da: espainiar Estatukoaren batez bestekoa baino 3,5 aldiz handiagoa da.

Gainera, 2016-2022 aldian Espainian hasitako alokairuko etxebizitza babestuen lautik bat EAEn dago. Kontuan izanik gure biztanleriaren pisua % 4,6koa baino ez dela, horrek esan nahi du arlo horretako benetako jarduera-maila 5 aldiz handiagoa izan dela, biztanleriaren pisuaren arabera zegokiguna baino.

La actual coyuntura dificulta enormemente el acceso a la vivienda en Euskadi a amplias capas de la población, especialmente en las zonas más tensionadas localizadas en las capitales vascas y sus áreas metropolitanas, caracterizadas por una mayor escasez de oferta a un precio asequible y por la gran demanda de vivienda.

En 2023, se detectaron por el Observatorio Vasco de la Vivienda 43 municipios vascos que cumplían requisitos para solicitar la declaración de Zona de Demanda Tensionada: 21 en Gipuzkoa, 2 en Araba y 20 en Bizkaia.

El resultado inmediato de esta coyuntura que se traslada a las capas sociales de rentas bajas y medias de Euskadi, es un incremento del esfuerzo económico para el acceso a la vivienda, tanto en compra como en alquiler, en amplias zonas fundamentalmente urbanas fuertemente tensionadas por la inexistencia de una oferta asequible que evite el sobre esfuerzo económico y financiero de los hogares para mantenerse en su vivienda o a la inaccesibilidad pura y dura al derecho a la vivienda, ampliando los límites económicos y colectivos sociales destinatarios, vinculándolos a la Renta de Garantía de Ingresos y el Ingreso Mínimo Vital, y asumiendo desde el ámbito de vivienda las prestaciones complementarias a la vivienda.

El derecho subjetivo a la vivienda será plenamente operativo en 2025, ampliando los límites económicos y colectivos sociales destinatarios, vinculándolos a la Renta de Garantía de Ingresos y el Ingreso Mínimo Vital, y asumiendo desde el ámbito de vivienda las prestaciones complementarias a la vivienda.

En cuanto a la edificación de vivienda protegida en alquiler, Euskadi destaca en sus objetivos y en su ejecución operativa. En 2025 se planea el inicio de la edificación de 1.475 nuevas viviendas protegidas en alquiler.

Este incremento de actividad sobre las dos última legislaturas, junto al nuevo recurso de las compras de viviendas y el incremento programado en la captación de viviendas libres deshabitadas a través de los programas Bizigune y Asap, debe permitir cumplir con el objetivo del Gobierno de poner a disposición de la ciudadanía 7.000 viviendas de protección pública en los próximos cuatro años.

Euskadi tiene uno de los indicadores de vivienda protegida en alquiler terminada por cada 1.000 habitantes más elevados de España, 67,6 frente al 19,4 de media estatal. Es decir, 3,5 veces la media española.

Y, además, 1 de cada 4 inicios de viviendas protegidas en alquiler en España, en el periodo 2016-2022, corresponden a Euskadi. Dado que nuestro peso poblacional apenas es del 4,6%, significa esto que el nivel de actividad real en la materia ha sido 5 veces superior a lo que nos hubiera debido corresponder por peso poblacional.

2024ko ekainera arte, 8.309 pertsonak zuten aitortuta etxebizitzarako eskubide subjektiboa, 31.046 pertsonak jasotzen zuten Etxebizitzarako Prestazio Osagarria, eta 9.511 pertsonak baino gehiagok Alokairurako Gizarte Larrialdietarako Laguntza. Hau da: etxebizitza-arloan dugun babes sozialeko sistemaren helburua EAEko biztanle zaurgarriek etxebizitza eskuratzeko da. Agerikoa da duen eragin-gaitasuna. Gainera, alokairuko parke publikoak 27.000 etxebizitza baino gehiago ditu; izan ere, EAEen alokairurako dauden etxebizitzaren % 50ek baino gehiagok (132.000 etxebizitza inguru gaur egun) esku-hartze publikoren bat du: zuzeneko (etxebizitza) edo zeharkakoa (alokairua ordaintzeko laguntzak).

Hala ere, lortu beharreko helburuak are zorrotzagoak dira: etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortuta duten 11.000 etxebizitza eta etxebizitzarako prestazio osagarria/etxebizitzaren prestazio osagarria jasotzen duten 28.000 hartzaile (prestazioak jaitsi egingo direla aurreikusten dugu, egoera ekonomikoa hobetu egingo delako, baina eskubide subjektiboa izanik, edozein maila estaliko da) 2025ean. Eta, datozen urteotan, gauzek berdin jarraituko dute Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialen programaturako terminoei dagokienez.

Gainera, ziuurtenik, 2025ean operatiboki indarrean jarriko dira, beren eragin eta irismenagatik esanguratsuen diren hiri-eremuetan, Etxebizitza Sailak tentsionatuz jotako eremuen deklarazioak, Estatuko Etxebizitza Legearen ondorioetarako eta lege horren zehaztapenekin, betiere udalen ezinbesteko eta halabeharrezko ekimenarekin, hiru urterako esku-hartze publiko eta pribatuko plan bateratuak garatzeko. Plan horiek etxebizitza eskuragarrien eskaintza berria sortuko dute, eskaintzaren eta eskariaren arteko desorekak konpondu ahal izateko eta prezioen etengabeko igoera saihesteko. Era berean, plan horiek urtero berrikusi eta garatuko dira, planifikaturako neurriak handitu, zuzendu, ezeztatu edo luzatzeko.

2024ko bigarren hiruhilekoan, 97.113 espediente egin ziren EAEko etxebizitza babestuen eskatzaileentzat, eta, horietatik, % 78k baino gehiagok alokairuko etxebizitza eskatu zuten.

Eskatzaileen % 80 baino gehiago dagoeneko emantzipatuta daude eta etxebizitza libre batean bizi dira, batez beste 678 euroko errenta ordainduta.

Balio absolutuetan, EAEko 32.000 pertsona eta familia baino gehiago dira gehiegizko alokairu librean etxebizitza ordaintzeko ahalegina egiten ari direnak (beren diru-sarrerak baino % 30 gehiago) eta Etxebizitzaren izena emanda daudenak, etxebizitza babestua eskuratzeko zain.

Nabarmentzekoa da alokairuko errenta ordaintzeko beren diru-sarrerak baino % 30 handiagoa den ahalegin ekonomikoa egin behar duten hiru bizikidetz-unitatetik bik prestazioren bat jasotzen dutela etxebizitza ordaintzeko. Proporzio hori hamar bizikidetz-unitatetik laukoa da % 30etik beherako ahalegina egin behar duten etxeetan.

Hasta junio de 2024, 8.309 hogares tenían reconocido el derecho subjetivo a la vivienda (DSV), 31.046 hogares percibían la Prestación Complementaria de Vivienda, y más de 9.511 hogares recibían la Ayuda de Emergencia Social al Alquiler. Es decir, disponemos de un sistema de protección social a la vivienda que intenta facilitar el acceso a un hogar de la población vasca más vulnerable. Resulta evidente su capacidad de impacto junto al propio parque público de alquiler que ya alcanza las 27.000 viviendas, dado que más del 50% de stock total de viviendas en alquiler existente en Euskadi (unas 132.000 viviendas hoy en día) dispone de algún grado de intervención pública directa (vivienda) o indirecta (ayudas al pago del alquiler).

Sin embargo, los objetivos a conseguir son aún más exigentes: 11.000 DSV y 28.000 PCV/PEV (prevemos una caída en prestaciones por mejoría situación económica, pero al ser un derecho subjetivo cualquier nivel será cubierto) en 2025. Y en años posteriores, suma y sigue, en los términos contemplados en el Pacto Social por la Vivienda.

Es además previsible que en 2025 entren operativamente en vigor en ámbitos urbanos significativos por su impacto y alcance, declaraciones de zonas de demanda tensionada a los efectos y con las determinaciones de la ley estatal de vivienda, con la imprescindible iniciativa e ineludible colaboración municipal, para desarrollar planes conjuntos de intervención público-privada a tres años, que generen nueva oferta de viviendas asequibles que permitan resolver los desequilibrios entre oferta y demanda y eviten el continuo incremento de precios, planes que serán objeto de revisión y evolución anual para ampliar, corregir, cancelar o prorrogar medidas planeadas.

En el 2º trimestre de 2024, los solicitantes de vivienda protegida en Euskadi contabilizan 97.113 expedientes, de los que más del 78% solicitaban vivienda en alquiler.

Casi el 80% de los demandantes ya están emancipados y residen en una vivienda libre abonando una renta media de 678 euros.

En términos absolutos son algo más de 32.000 personas y familias vascas que están teniendo que afrontar un esfuerzo excesivo (superior al 30% de sus ingresos) para el pago de la vivienda en alquiler libre y que están inscritos/as en Etxebide esperando acceder a una vivienda protegida.

Hay que subrayar que dos de cada tres unidades de convivencia que asumen un esfuerzo económico superior al 30% de sus ingresos para pagar la renta de alquiler reciben algún tipo de prestación para el pago de la vivienda, proporción que se reduce a cuatro de cada diez unidades de convivencia entre los hogares cuyo esfuerzo es menor al 30%.

Datu horiek presioa gehitzen diote sustapenaren eginkizunari, eta berretsi eta bermatu egiten dituzte eskaintza eskuragarriaren bitartekaritza-politikak (Bizigune eta ASAP programak), alokairu libre ordaintzeko prestazio ekonomikoak (EPO/EPE) eta gazteei emantzipatzeko ematen zaizkien laguntzak (Gaztelagun).

Jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren trakzio-ahalmena eta zaharberitze integralaren eragin sozial eta klimatiko handia kontuan hartuta (energia-efizientzia, irisgarritasuna, egitura-segurtasuna eta bizigarritasuna), eta jakinik aipatutako azken faktore hori politika publikoetan sartu beharreko faktore erabakigarri berria dela, zaharberitze-politikak 2025erako diskurtso politikoen erdigunean daude, eta apustu estrategiko hori aurrekontuetan finkatzen da.

EAEko etxebizitza-parkea nahiko zaharra da (batez beste, 46 urte ditu), eta zaharberitzeko eta irisgarritasuneko eta energia-efizientziako baldintzetara egokitzeko premia handia du. EAEko etxeen % 8,2k epe labur eta ertainean zaharberitzeko beharra dute.

Irisgarritasunaren arazoak ahalegin handi eta ugaria eskatzen du oraindik, eta ahalegin horrek etengabea eta denboran irmoa izan behar du. Biztanleriaren zahartze azkarrak eta ahal den bitartean modu autonomoan bizitzeko nahiak bultzatzen dute arlo horretako ekintza. Irisgarritasun unibertsala da bilatzen den erronka, eta lehendik zeuden etxebizitzak, berriz, xede-kolektiboa. Beharizana duten 10 familiatik 9k ez dute beren mugikortasunera egokitutako etxebizitzarik, eta ia erdiek irisgarritasun-arazo larriak dituzte bizi diren eraikineko elementu komunei edo kanpokoei dagokienez.

Era berean, bide luzea dago egiteko eraikin eta etxebizitza parkearen eraginkortasun energetikoa hobetzeko. Zaharberritu beharra duten 10 etxetik 4tan, beharizan hori etxebizitzaren tenperatura hobeto mantentzeko premiarekin lotzen da. Krisi energetikoaren baitan, pobrezia energetikoa gero eta handiagoa da. Eta bizitegi-eraikinak deskarbonizatzea, haien emisioak murriztuz, eraginkortasuna hobetuz eta energia berriztagarrien erabilera areagotuz, sekulako erronka da, ez zaiguna soilik iristen guk hala aukeratu dugulako, ezpada gero eta zorrotzagoak eta anbizio handiagokoak diren Europako zuzentarau askok hala exijitzen dutelako.

Europako SEM funtsak aukera garrantzitsu eta aparta dira, eta EAE ezin hobeto ari da funts horiek aprobetxatzen: 195,15 milioi euro, 15.546 etxebizitzaren energia-eraginkortasuna birgaitzeko eta alokairu eskuragarriko 1.140 etxebizitza eraikitzeko, beste 495 etxebizitzara hedatuta. Programa horiek guztiak 2026ra arte egikaritu ahal izango dira, eta gaur egun gauzatzen ari dira.

Izan ere, Euskadiko Etxebizitzaren aldeko 2022-2036 Itun Soziala oso erronka zorrotza da zaharberitzearen arloan: orain, urtean zaharberritu beharreko eraikinen tasa % 1,5ekoa da; bada, kopuru hori atzean utzi, eta eraikitako eraikinen % 3ra igaro beharra dago.

Estos datos añaden presión a nuestra función y confirman y avalan las políticas de intermediación de oferta asequible (programas Bizigune y ASAP), las prestaciones económicas al pago del alquiler libre (PEV/PCV) y las ayudas a las personas jóvenes para su emancipación (Gaztelagun).

La capacidad tractora de actividad económica y empleo y la enorme incidencia social y climática (nuevo factor crucial con impactos a incluir en las políticas públicas) que ofrece la rehabilitación integral (eficiencia energética, accesibilidad, seguridad estructural y habitabilidad), hace que las políticas de rehabilitación estén en el centro del discurso político para 2025, consolidando esta apuesta estratégica.

El parque de viviendas de Euskadi presenta una notable antigüedad (media de 46 años), con importantes necesidades de rehabilitación y adaptación a las condiciones de accesibilidad y eficiencia energética. El 8,2% de los hogares de Euskadi tiene necesidad de rehabilitar a corto y medio plazo.

El de la accesibilidad es un problema que requiere todavía de amplios y abundantes esfuerzos que deberán ser constantes y consistentes en el tiempo. El envejecimiento poblacional acelerado y el amplio deseo mayoritario de vivir autónomamente mientras sea factible, empuja a la acción en esta materia. La accesibilidad universal es el reto y las viviendas preexistentes el colectivo diana. 9 de cada 10 hogares con necesidad no cuentan con el interior de su vivienda adaptada a su movilidad y casi la mitad presentan serios problemas de accesibilidad vinculados a elementos comunes o externos del edificio donde habitan.

Asimismo, queda mucho camino por recorrer en la mejora de la eficiencia energética del parque de edificios y viviendas. En 4 de cada 10 hogares con necesidad de rehabilitación, esta se vincula a la necesidad de mantener mejor la temperatura de la vivienda. La pobreza energética está siendo un fenómeno creciente ante la crisis energética. Y la necesidad de descarbonizar los edificios residenciales reduciendo las emisiones y mejorando su eficiencia, aumentando de paso el empleo de energías renovables, constituye un reto mayúsculo, que nos llega, además de nuestra propia elección, a través de numerosas directivas europeas cada vez más exigentes y ambiciosas.

Los fondos europeos MRR están siendo una importante y excepcional oportunidad que Euskadi está aprovechando de forma excelente: 195,15 millones de euros para el impulso rehabilitador de la eficiencia energética de 15.546 viviendas, y la construcción de 1.140 viviendas de alquiler asequible ampliadas en hasta otras 495 viviendas, programas todos ellos ejecutables hasta 2026 y en ejecución actual.

Y es que el reto en materia de rehabilitación del Pacto Social por la Vivienda de Euskadi 2022-2036 es muy exigente: pasar de la actual tasa del 1,5% de edificios a rehabilitar anualmente, al 3% de los edificios construidos.



Azkenik, Euskadiko Etxebizitza eta Hirigintzaren Topagune berria 2025ean egongo da operatibo, eta parte hartzeko, eztabaidatzeko eta ebaluatzeko gune iraunkor bat sortuko da horren bitartez, lotesleak izango ez diren gomendioak eginez Etxebizitza Sailburuordetzari eta beste eremu instituzional batzuei. Funtsean, Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala sinatu duten erakundeek osatuko dute aipatutako topagunea.

**2. 2025eko ETXEBIZITZA PROGRAMAREN DEFINIZIO OPERATIBOA**

2025ean, modu operatiboan garatuko dugu Etxebizitzaren aldeko 2022-2036 Itun Sozialean eta 2025-2027ko Etxebizitzaren Gida Planean jasotako plangintza estrategikoa.

2025eko etxebizitza-programan, lortu beharreko helburuak eta gauzatu beharreko ekintza-ildo nagusiak definitzen ditugu, hiru ardatz estrategikotan egituratuta.

Finalmente, el nuevo Foro de Encuentro de la Vivienda y Urbanismo de Euskadi que será operativo en 2025 creará un espacio permanente de participación, debate y evaluación, realizando para ello recomendaciones a la Viceconsejería de Vivienda y a otros ámbitos institucionales, que tendrán un carácter no vinculante. Estará conformado fundamentalmente por las entidades firmantes del Pacto Social por la Vivienda.

**2. LA DEFINICIÓN OPERATIVA DEL PROGRAMA DE VIVIENDA 2025**

En 2025 desarrollaremos operativamente la planificación estratégica contenida en el Pacto Social por la Vivienda 2022-2036 y en el nuevo Plan Director de Vivienda 2025-2027.

Definimos en el programa de vivienda 2025 los siguientes objetivos a alcanzar y las grandes líneas de acción a materializar, estructurados en tres ejes estratégicos.

<b>HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA</b>	<b>MAGNITUDEA MAGNITUD</b>	<b>OBJETIVO ACCION INDICADOR</b>
<p><b>1. ALOKAIRU ESKURAGARRIA SUSTATZEA EUSKADIN</b></p> <p>1. Alokairu babestuko etxebizitzaren kopurua. Etxebizitzak. <b>30.824</b></p> <p>2. Alokairuko parke publikoaren kuota guztizko parke babestu osoarekiko. Ehunekoak. <b>%38</b></p> <p>3. Abenduaren 31n errentamendu-kontratuen erregistroan aitortutako higiezinaren kopurua. Kontratuak, etxebizitzak eta lokalak. <b>175.000</b></p> <p>4. Sustapen berriko etxebizitzak, alokairuan. Etxebizitzak. <b>1.475</b></p> <p>a) Zuzkidura-bizitokiak eta babes publikoko etxebizitzak Saila. Zuzkidura-bizitokiak. <b>225</b></p> <p>b) Babes publikoko etxebizitzak. VISESA. Etxebizitzak. <b>750</b></p> <p>c) Zuzkidura-bizitokiak eta babes sozialeko etxebizitzak. ekimen pribatuak sustatutako etxebizitzak eta alokairu babestuan eta eskuragarrian, Programak diruz lagunduta. errentamendua eta babes publikoko etxebizitzak edo etxebizitza libreak sustatzeko cohousing eta alokairu programa berria. Eraikinak eta etxebizitzak. <b>500</b></p> <p>5. Alokairu eskuragarriko etxebizitzak erostea. Etxebizitzak.</p>		<p><b>1. FOMENTO DEL ALQUILER ASEQUIBLE EN EUSKADI</b></p> <p>1. Número de viviendas del parque en alquiler protegido. Viviendas.</p> <p>2. Cuota del parque público de alquiler sobre total parque protegido. Porcentaje.</p> <p>3. Número de contratos de arrendamiento registrados a 31 de diciembre en Registro de Fianzas. Contratos viviendas y locales.</p> <p>4. Viviendas de nueva promoción en alquiler. Viviendas.</p> <p>a) Alojamientos dotacionales y viviendas de protección pública Departamento. Alojamientos dotacionales.</p> <p>b) Viviendas de protección pública VISESA. Viviendas.</p> <p>c) Alojamientos dotacionales y viviendas de protección social por parte de entes locales; viviendas promovidas por la iniciativa privada y social en alquiler protegido y asequible subvencionadas por el Programa de fomento al arrendamiento y viviendas de protección pública o libres en cohousing y nuevo programa Alokairu. Inmuebles y viviendas.</p> <p>5. Compra de viviendas para alquiler asequible. Viviendas.</p>

<b>HELBURUA</b> <b>EKINTZA</b> <b>ADIERAZLEA</b>	<b>MAGNITUDEA</b> <b>MAGNITUD</b>	<b>OBJETIVO</b> <b>ACCION</b> <b>INDICADOR</b>
<p>Etxebizitzak.</p> <p>6. Operadore pribatuek eta erosketa-aukera duten erosketa-kooperatibek eta alokairu-kooperatibek hitzartutako babes publikoko etxebizitzak.</p>	<p><b>125</b></p>	<p>Viviendas.</p> <p>6. Viviendas de protección pública promovidas por operadores privados y cooperativas en compra y en alquiler con opción de compra.</p>
<p>Etxebizitzak.</p> <p>7. Bizitegi-lurzoruak. Operadoreek lortutako lurzoruetan eraiki daitezkeen babes publikoko etxebizitzak kopurua.</p>	<p><b>1.200</b></p>	<p>Viviendas.</p> <p>7. Suelos residenciales. Número de viviendas de protección pública edificables sobre suelos obtenidos por operadores.</p>
<p>Etxebizitzak.</p> <p>a) Sailak lortutako lurzoruaren gainean eraiki daitezkeen babes publikoko etxebizitzak kopurua.</p>	<p><b>1.500</b></p>	<p>Viviendas.</p> <p>a) Número de viviendas de protección pública edificables sobre suelo obtenido por el Departamento.</p>
<p>Etxebizitzak.</p> <p>b) VISESAk lortutako lurzoruaren gainean eraiki daitezkeen babes publikoko etxebizitzak kopurua.</p>	<p><b>1.000</b></p>	<p>Viviendas.</p> <p>b) Número de viviendas de protección pública edificables sobre suelo obtenido por VISESA.</p>
<p>Etxebizitzak.</p> <p>8. Finantza-hitzarmenaren bidez sistemari emandako finantzaketa.</p>	<p><b>500</b></p>	<p>Viviendas.</p> <p>8. Financiación aportada al sistema a través de Convenio Financiero.</p>
<p>Finantza.</p> <p>9. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa eta prestazioen kudeaketako etapa berria.</p> <p>a) Etxebizitzarako eskubidea aitortuta duten familiak (urteko metatua).</p>	<p><b>60.000.000</b></p>	<p>Financiación.</p> <p>9. Derecho subjetivo a la vivienda y nueva etapa en la gestión de prestaciones.</p> <p>a) Hogares con derecho a la vivienda reconocidos (acumulado anual).</p>
<p>Etxeak.</p> <p>b) Etxebizitzarako Prestazio Osagarria/Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa jasotzen duten familiak (hileko batez bestekoa ekitaldi bakoitzean).</p>	<p><b>11.000</b></p>	<p>Hogares.</p> <p>b) Hogares perceptores Prestación Complementaria de Vivienda/ Prestación Económica de Vivienda (promedio mensual en cada ejercicio).</p>
<p>Etxeak.</p> <p>10. Gazteen emantzipazioa sustatzea alokairu-erregimenean (Gaztelagunen onuradun kopurua).</p>	<p><b>28.000</b></p>	<p>Hogares.</p> <p>10. Impulso de la emancipación de la población joven en régimen de alquiler (número de beneficiados por Gaztelagun).</p>
<p>Onuradunak.</p> <p>11. Etxebizitza-premia berezia duten kolektiboei arreta emateko ekintzak (utzarazpenak, pobrezia energetikoa, etxegabetasunik ez, etab.), ALOKABIDEn ekintzak eta hirugarren sektorearekiko lankidetzak barne hartuta (esleipen kopurua).</p>	<p><b>8.500</b></p>	<p>Beneficiados.</p> <p>11. Acciones de atención a los colectivos con especial necesidad de vivienda (desahucios, pobreza energética, sin hogarismo, etc.), incorporando las acciones de Alokabide y colaboración con el tercer sector (n. adjudicaciones).</p>
<p>Etxebizitzak.</p> <p>a) Hirugarren sektoreko erakundeei eta entitateei gizarteratze-sarerako lagatako etxebizitzak kopurua. Metatua.</p>	<p><b>395</b></p>	<p>Viviendas.</p> <p>a) Número de viviendas cedidas a instituciones y entidades del Tercer Sector para la red de inserción social. Acumulado.</p>
<p>Etxebizitzak.</p> <p>b) Housing First Programaren esparruan hirugarren sektoreko erakundeei lagatako etxebizitzak kopurua. Metatua.</p>	<p><b>250</b></p>	<p>Viviendas.</p> <p>b) Número de viviendas cedidas a instituciones y entidades del Tercer Sector en el marco del Programa Housing First. Acumulado.</p>
<p>Etxebizitzak.</p>	<p><b>25</b></p>	<p>Viviendas.</p>

<b>HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA</b>	<b>MAGNITUDEA MAGNITUD</b>	<b>OBJETIVO ACCION INDICADOR</b>
c) Zuzeneko esleipenen kopurua genero-indarkeriaren aurkako bizileku-alternatiba programaren esparruan. Urtekoak.  Etxebizitzak.	<b>60</b>	c) Número de adjudicaciones directas en el marco Programa Alternativa habitacional ante lanzamientos. Anuales.  Viviendas.
d) Zuzeneko esleipenen kopurua genero-indarkeriaren aurkako bizileku-alternatiba programaren esparruan. Urtekoak.  Etxebizitzak.	<b>60</b>	d) Número de adjudicaciones directas en el marco Programa Alternativa habitacional frente a la violencia de género. Anuales.  Viviendas.
12. Etxebizitza libre hutsak alokairu babestura bideratzea.  Etxebizitzak.	<b>8.650</b>	12. Movilizar vivienda libre vacía hacia el alquiler protegido.  Viviendas.
a) Biziguneren alokairu babestuko parkea osatzen duten etxebizitzak kopurua abenduaren 31n.  Etxebizitzak.	<b>8.250</b>	a) Número de viviendas que integran el parque de alquiler protegido de Bizigune a 31 de diciembre.  Viviendas.
b) ASAPeko alokairu babestuko parkea osatzen duten etxebizitzak kopurua abenduaren 31n.  Etxebizitzak.	<b>400</b>	b) Número de viviendas que integran el parque de alquiler protegido de ASAP a 31 de diciembre.  Viviendas.
13. Etxebizitza babestuen parkearen kontrola eta ikuskapena (ikuskatutako parke publikoko etxebizitza kopurua).  Etxebizitzak.	<b>10.000</b>	13. Control e inspección del parque de vivienda protegida (número de viviendas del parque público inspeccionadas).  Viviendas.
<b>2. ERAIKINEN ETA ETXEBIZITZEN PARKEA BIRGAITZEA (ERAIKINAK BIRGAITZEKO RATIOA (%), LIZENTZIAK/BIZITEGI-PARKEA).</b>		<b>2. REHABILITACIÓN DEL PARQUE DE EDIFICIOS Y VIVIENDAS (RATIO DE REHABILITACION DE EDIFICIOS (%), LICENCIAS/PARQUE RESIDENCIAL.</b>
1. Urtean birgaitutako eraikinak, lehendik zeuden eraikin guztiekiko.  Ehunekoa.	<b>%2,50</b>	1. Edificios rehabilitados en el año sobre total edificios preexistentes.  Porcentaje.
2. Euskoregintzan abenduaren 31n metatutako EITen kopurua.  Eraikinen ikuskapen teknikoak.	<b>75.000</b>	2. ITES registradas en Euskoregite acumuladas a 31 de diciembre.  Inspecciones técnicas edificios.
3. Birgaitutako eraikinen kopurua (esku-hartzeak dituzten eraikinen kopurua).  Eraikinak.	<b>3.800</b>	3. Número de edificios rehabilitados (n. de edificios con intervenciones).  Edificios.
4. Birgaitutako etxebizitzak kopurua (administrazio-ebazpenen kopurua).  Etxebizitzak.	<b>34.000</b>	4. Número de viviendas rehabilitadas (n. de resoluciones administrativas).  Viviendas.
5. Birgaitze efizientearen arloko proiektu integralak: hasitako jarduketak: hobetutako eraikinen kopurua.  Eraikinak.	<b>1.000</b>	5. Proyectos integrales en materia de rehabilitación eficiente: Actuaciones iniciadas: n. de edificios mejorados.  Edificios.
6. Birgaitze efizientearen arloko proiektu integralak: hasitako jarduketak: emandako laguntzek eragindako etxebizitzak kopurua.  Etxebizitzak.	<b>8.000</b>	6. Proyectos integrales en materia de rehabilitación eficiente: Actuaciones iniciadas: nº. de viviendas afectadas por las ayudas concedidas.  Viviendas.

<b>HELBURUA</b> <b>EKINTZA</b> <b>ADIERAZLEA</b>	<b>MAGNITUDEA</b> <b>MAGNITUD</b>	<b>OBJETIVO</b> <b>ACCION</b> <b>INDICADOR</b>
7. Irisgarritasuna hobetu duten etxeen kopurua (igogailuak jartzea, arrapalak).		7. Número de hogares que han mejorado la accesibilidad (instalación de ascensores, rampas).
Etxeak.	4.000	Hogares.
8. Instalaturako igogailuen kopurua.		8. Número de ascensores instalados.
Igogailuak.	500	Ascensores.
9. Next Generation Europako funtsen kargura energia-eraginkortasunean birgaitutako etxebizitzaren kopurua (adierazlea: amandako laguntzek eragindako etxebizitzaren kopurua).		9. Número de viviendas rehabilitadas en eficiencia energética con cargo fondos europeos Next Generation (indicador: nº de viviendas afectadas por las ayudas concedidas).
Etxebizitzak.	20.916	Viviendas.
10. Birgaitze-prozesuen ondoren sortutako etxebizitzaren kopurua. adierazlea: EEE.		10. Número de viviendas creadas tras procesos de rehabilitación. Indicador: Edivi.
Etxebizitzak.	1.000	Viviendas.
11. Zero Plana birgaitutako etxebizitza publikoen kopurua.		11. Número de viviendas públicas rehabilitadas Zero Plana.
Etxebizitzak.	300	Viviendas.
12. Kudeaketa-sistemak sustatzeko, jasangarritasuna bultzatzeko, berrikuntzari laguntzeko eta hiri-habitata sustatzeko ERAIKAL laguntza-programaren esparruan diruz lagundutako proiektuen kopurua.		12. Número de proyectos subvencionados en el marco del programa de ayudas ERAIKAL para la promoción de sistemas de gestión, fomento de la sostenibilidad, apoyo a la innovación y del hábitat urbano.
Proiektuak.	80	Proyectos.
<b>3. ETXEBIZITZA-POLITIKAREN GOBERNANTZA- ETA EBALUAZIO-SISTEMAK</b>		<b>3. SISTEMAS DE GOBERNANZA Y EVALUACIÓN DE LA POLÍTICA DE VIVIENDA</b>
1. Etxebizitza-politika publikoaren ebaluazio-txostenen kopurua.		1. Número de informes de evaluación política pública vivienda.
Txostenak.	6	Informes.

**PROGRAMA**

4313 LURRALDE ANTOLAMENDUA

**ARDURADUNA**ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDALURRALDE PLANGINTZA, HIRIGINTZA ETA HIRI BERRONERATZE  
ZUZENDARIA**PROGRAMA**

4313 ORDENACIÓN TERRITORIAL

**RESPONSABLE**VIVIENDA Y AGENDA URBANADIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA  
URBANA**MEMORIA**

2025eko ekitaldia lehenengoa izango da 2025/28 Gobernu Programaren edukiak betetzeko, eta, beraz, aurrekontu honen helburua Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzaren partidak diruz hornitzea da, 2025eko ekitaldiko konpromisoak eta urte anitzeko konpromisoetatik eratorritakoak betetzeko, helburu horiek betetzeko tresna egokiak artikulatuz.

Horrela, aurrekontu hauen helburua Bultzatu 2050 Hiri Agenda hedatu, ezarri eta garatzea ahalbidetuko duten politikak betetzea da, lurralde-plangintza eta -informazioaren, hirigintzaren, hiri-berroneratze eta -berrikuntzaren eta bizitegi-eraikinen birgaitze integralaren bidez. Gizarte-, ingurumen-, genero- eta ekonomia-ikuspegia lehenestean oinarritutako politikak dira, bai eta Garapen Iraunkorreko Helburuek (GJH) sostengatutako politikak ere; izan ere, 11. helburua (Hiri eta Komunitate Iraunkorrak) gainerako 16 helburuei laguntzeko balio du. Eta hori guztia, Hiri Agendak ezartzen duen moduan, printzipio honetan oinarrituta: lurralde bakar bat ere, pertsona bakar bat ere ezin da atzean geratu, eta kohesioak, berdintasunak, erresilientziak, orekak eta jasangarritasunak denei eman behar dizkiete aukerak.

Horregatik, datorren ekitaldirako, gure helburua da aurreko ekitaldietan garatutako politikak sendotzea eta ekimen berrietan aurrera egitea, Lurralde Plangintza eta Informazioaren eta Auzo Kalteberetako Hiri Berroneratze Integralaren bidez, gure herri eta hirietan emaitza ukigarriak eta funtsezkoak ikusteko.

Politika horiek guztiak Hiri Agenda lortzeko tresnarik onena dira, eta Sailburuordetza honen helburu programatiko gehienak horren gainean oinarritzen dira. Horregatik, aurrekontuak, horiek betetzeko, ezinbesteko finantza-tresnatzat hartuta, ematen ditu hurrengo ekitaldian herri eta hiri inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak lortzeko baliabide nahikoak.

El próximo ejercicio 2025 será el primero para el cumplimiento de los contenidos del Programa de Gobierno 2025/28, y por tanto el objetivo de este presupuesto es dotar económicamente a las partidas de la Dirección de Planificación Territorial y Agenda Urbana para cumplir los compromisos de este ejercicio 2025 y los derivados de los compromisos plurianuales articulando las herramientas adecuadas para cumplir estos objetivos.

Así, estos presupuestos persiguen cumplimentar unas políticas que permitan el despliegue, la implantación y desarrollo de la Agenda Urbana Bultzatu 2050, a través de la planificación e información territorial, el urbanismo, la regeneración y renovación urbana y la rehabilitación integral de los edificios residenciales. Se trata, tanto de políticas basadas en priorizar la perspectiva social, ambiental, de género, y económica, como de políticas sustentadas por los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) donde el objetivo 11 (Ciudades y Comunidades Sostenibles) sirve de punto de apoyo al resto de los 16 Objetivos. Y todo ello basado, tal y como lo establece la Agenda Urbana, en el principio de que ningún territorio, ninguna persona puede quedar atrás y de que la cohesión, la igualdad, la resiliencia, el equilibrio y la sostenibilidad deben dar oportunidades a todos y todas.

Por ello, para el próximo ejercicio, es nuestro objetivo consolidar las políticas desarrolladas en ejercicios pasados y avanzar en nuevas iniciativas que permitan, a través de la Planificación y la Información Territorial y la Regeneración Urbana Integral en Barrios Vulnerables, visualizar resultados tangibles y sustanciales en nuestros pueblos y ciudades.

Todas estas políticas nacen como el mejor instrumento para la consecución de la Agenda Urbana y sobre el que pivota el grueso de los objetivos programáticos de esta Viceconsejería. Por ello, entendiendo el Presupuesto como herramienta financiera imprescindible para cumplirlos, el mismo dota en el próximo ejercicio de recursos suficientes para lograr pueblos y ciudades inclusivas, seguras, resilientes y sostenibles.

2019an onartu zenetik, gure Bultzatu 2050 Hiri Agendak ibilbide bat egin du, dagokion jarraipen-txostenetan jasota dagoena. Lehenengo txostenean, Hiri Agendaren Lantaldearen (GTAU) bidez egindako jarduerak islatzen dira. Lantalde hori dagoeneko Trantsizio Sozialeko Eragile Anitzeko Foroaren eta 2030 Agendaren Lantalde gisa dago integratuta. Bigarren txostenean, berriz, Hiri Agendaren 2. eta 4. lehenetsunen jarraipen bana egin da (mugikortasuna eta garraioa, eta hiri berritzaileak, hurrenez hurren).

2025erako, hirugarren jarraipen-txostena egin nahi da. Kontuan hartuta zortzi direla lehenetsun estrategikoak (etxebizitza eta oinarriko ekipamenduak; mugikortasuna eta garraioa; hiri-plangintza jasangarria; hiri berritzaileak; garapen ekonomikoa eta enplegua; hiri iraunkorrak eta erresilienteak; osasuna eta ongizatea; hiri askotarikoak eta inklusiboak), eta legealdi bakoitzean lehenetsun estrategiko horietako bakoitzaren jarraipen sakona egin ahal izateko, urtero horietako bi baloratuko dira, legegintzaldi bakoitzaren amaieran haren bilakaeraren ikuspegi zehatzagoa izanik

2024ko memorian ohartarazi genuenez, urte hau funtsezkoa izango da Eusko Jaurlaritzak, Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) eta Bilboko Udalak Hiria Berronertzeko Ikerketa eta Berrikuntza Transferitzeko Zentroa (CTI+IRU) sortzeko akordioa ixteko.

I+G+B arloko Hiri Agendatik ondorioztatuko diren ekintzen integrazioaren ikuspuntutik, ZTBP 2030eko "Hiri iraunkorrak" aukera-nitxoaren lidergoarekin jarraituko da, Deustuko Unibertsitateko "Cities Lab Katedra" ren lankidetzarekin hitzarmena osatuz eta politika horri I+G+b euskarria emanez. Era berean, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoarekin (Valleseko Arkitektura Eskolarekin) eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin (CAVIAR ikerketa-taldearekin) eta Madrilgo Unibertsitate Politeknikoarekin lankidetzan jarraituko da.

Bultzatu 2050 Hiri Agenda Lurralde Plangintzaren bidez garatzeari dagokionez, 2019an Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspena onartzearekin hasitako bidearen ildotik, gidalerro horietan jasotako helburuak finkatzea lortuko dugu, eremu funtzionaletakoa lurralde-plan partzialak nahiz Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan eta legeria sektorialean aurreikusitako lurralde-plan sektorialak pixkanaka idatziz eta onartzuz.

Gure ordenamendu juridikoak aurreikusten duen eskumen-banaketa kontuan hartuta, gobernantza egokia bermatzeko, funtsezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen eta Lurralde Politikarako Aholku Batzordearen kudeaketak administrazio-integrazioarako eta erakundeen arteko koordinazioarako dakarren zeregin garrantzitsuari eustea eta hori indartzea.

Desde su aprobación en 2019, nuestra Agenda Urbana Bultzatu 2050 ha realizado un recorrido que viene recogido en los correspondientes Informes de seguimiento. Mientras que en el Primer Informe se reflejan las actividades realizadas a través del Grupo de Trabajo de Agenda Urbana (GTAU), integrado ya como Grupo de Trabajo del Foro Multiagente de Transición Social y Agenda 2030, en el Segundo Informe se han realizado sendos seguimientos de las prioridades 2 y 4 de la Agenda Urbana (movilidad y transporte, y ciudades innovadoras, respectivamente).

Para 2025, la voluntad es realizar el Tercer Informe de Seguimiento. Teniendo en cuenta que son ocho las prioridades estratégicas (vivienda y equipamientos básicos; movilidad y transporte; planificación urbana sostenible; ciudades innovadoras; desarrollo económico y empleo; ciudades sostenibles y resilientes; salud y bienestar; ciudades diversas e inclusivas), y con el fin de que cada legislatura se pueda hacer un seguimiento profundo de cada una de estas prioridades estratégicas, anualmente se valorarán dos de ellas, teniendo al final de cada legislatura una visión más certera de su evolución.

Como ya advertimos en la memoria de 2024, este año será clave para cerrar el Acuerdo entre el Gobierno Vasco, la Universidad del País Vasco (UPV) y el Ayuntamiento de Bilbao para la creación de un Centro de Transferencia de la Investigación y la Innovación en Regeneración Urbana (CTI+IRU).

Desde el punto de vista de la integración de acciones que se derivarán de la Agenda Urbana en materia de I+D+i, se continuará con el liderazgo del nicho de oportunidad "Ciudades sostenibles" del PCTI 2030, complementando el convenio con la colaboración de "Cities Lab Katedra" de la Universidad de Deusto, dando un soporte en I+D+i a esta política. De forma similar, se continuará con la colaboración con la Universidad Politécnica de Cataluña (con la Escuela de Arquitectura del Vallés) y la Universidad del País Vasco, (con el grupo de investigación CAVIAR) y la Universidad Politécnica de Madrid.

